

NORABIDEA ALDATZEKO GARAIA DA

Nabarrako lurralde okupatueterik (2000.5.10)

Orreagako hirugarren bataila bezala ezagun den 824. urteko euskaldunen frankoen gaineko garaipenak gure herriko buruzagi nagusiak ordurarte zeukaten antolaketa politikoa bere maila gorenera, Erreinua osatzera, bultzatuko zituen baldintza multzoa erakarriko zuen seguruenik. Hau da, Estatu independente, bateratu eta burujabea eratzera: haien gizarte antolaketa eta bizimodua babestu, frantziar eta espainiarren asmo inperialistei aurre egin eta atzerriko uztarritik aske izateko modurik eraginkorrena zena. Ez daukagu daturik burujabe zen erakunde juridiko-politiko hori eratzean milaka urtetako zibilizazio baten aterpe eta babes gisa zuen garrantziaz jabetzen ote ziren berri ematen digunik.

Kontua da Iruñea-Nabarrako Erreinua gaur egun garena, bere nortasunaz jabetzen den gizatalde jakina, garai batean lurralde zabalagoan hedatuta zegoen zibilizazio baten sortzaile eta zabaltzaile izan den berri bat, izatea ahalbidetu digun tresna izan dela.

Mendeetan barrena onuragarri izan den osagai kultural oro xurgatzen jakin duen eta hamaika gorabehera politiko bizi izan duen herri ausart honek ez du desagertu nahi, jakinaren gainean izan ala ez, giza-kultura baten, biziera baten eta errealtatearen bizipen baten, zeinaren oinarri eta esentzia euskara baita, eramaile bezala ikusten baitu bere burua.


Noraeza eta euskal kontzientzi politikoaren krisi garai honetan asmo onez Euskal Herriaren eraikuntza proposatu zaigu helburu bezala. Ikuspegi akatsa eta adierazpen okerrekoa iruditzen zaigu, inperialismoak gure kontzientzi manipulatueta txertatu duen gure Historiaren gaineko ezjakintasunaren ondorioa eta horrek dakarren nazio-estrategi politikoaren gabeziaren sortzaile.

Euskal Herria euskal kultura era hizkuntzaren komunitatea da. hau da, gure Aberriaren izen etnikoa. Hala ere, egiten ari garen lan honek helburu politikoa izanik, gure herriak izate politiko burujabe bezala eduki duen izena izan behar du lehen erreferentzia: Nabarra.

Nahiz eta kanpoko potentziek okupatuta egon, nabar hiritarrak gara eta horrela ihardun eta jokatu behar dugu. Izen horrekin Estatu propio bat eduki dugu, horretatik sortu dira gure erakunde guztiak eta horretara zuzendu behar ditugu gure erreferentzi politiko guztiak.

Ezin dugu gure iragana eta Historia, gure herriaren zati eta talde guztiak batu dituen eta askatasunaren bidean eraman behar gaituen erakunde besterik gabe baztertu.

Nabarra, herri bezala munduan ezagun egin gaituen izenak Estatu historiko independente eta burujabea esan nahi du. Gure nazio-estatua den hori, zeinari etsai inperialistak setakeriaz eta botere nahiaz lurraldearen zati utziezinak kendu baitzizkion eta azkenean gu desegin eta besterenganatzeko asmoarekin gainontzeko Europako herrien artean zuen bizi



independentea eta garapena militarki eta bortizki moztu baitzion, Estatu horri eskaini behar diogu gure gogo eta ardura guztia.

Egunetik egunera bistakoa dena ikusten ari gara: gaur egungo erregimen estatutarioa eta etorkizunean inperialistek eskaini diezazkiguketen autonomi edo erregimenak, irteerarik gabeko bideak direla, ia konturatu gabe eta ez oso epe luzera, gure herriaren herio gozoa suposatuko duten amarru maltzurak.

Gure jendea, azken finean politika inperialistaren gustura atondutako hauteskunde lehia antidemokratikoetan parte hartzera bultzatzeak ez du lotura kolonizatzaileak gabeko adimen askeak hezitzen, bere funtzioa erregimen koloniala funtzionaraztea baita, kasu honetan, nabar ikuspegitik inongo zilegitasunik ez duten ordezkarien berritzearekin.

Botere okupatzaileak sortutako erakundeetan parte hartzeak ez du irtenbide estrategikorik: lege eta parlamentu arrotzen gurpilean kateaturik gelditzeko arriskua dakar, eta lorpen engainagarrien bitartez -nahiz eta indarrean dagoen sisteman ekonomikoki ongi kokatuta daudenentzat onuragarriak izan- nazio ikuspegia desitxuratu eta kanpokoan nagusitasuna iraunarazten du, gainera erregionalistek, sekula gauzatzeko asmorik ez duten independentziaren itxaropen faltsua hedatzen dute, errealitatean estatu okupatzaileak kudeaketa administratiboaren atal batzuk haien esku ipinita asebeteta uzten dituelarik.

Horrela, egun aurkezten zaizkigun proposamen politikoak inora ez garamatzaten bideragarritasunik gabeko proiektu inozoak direla jabetzen gara, okupatzailearengandik askatu beharrean, iparra galtzera garamatzatela, abertzaleen arteko zatiketara, etsaiaren gozamenarako, aurrerantzean gu menpean izaten jarraitu ahal izango baitu.

Sakon hausnartu beharrean gaude, gogor txertatutako nagikeria gaintuz. Gure gogoeta eta ekimenak helburuak lortzeko nazio-estrategiaren beharretara egokitu behar ditugu, "politika instituzionalizatuaren" esparruan dabilzan mugimenduengandik ezer eranginkorrik itxaron gabe, esperientziak erakusten baitigu indargabe eta antzuak direla, ez baitira gauza egungo ezintasun egoeratik ateratzeko. Orduan, jarraitu beharreko bidea argitasun handiagoarekin ikusi ahalko dugu, eta baita gure lana ere, inongo konplexurik gabe, gure buruhauste politikoaren muinera zuzendu behar dugula: helburua, benetakoa eta eraginkorra izango den bakarra, abertzale sutsuenak eta gure herriaren parterik kontzienteena elkarlanean jarri eta aske egingo duena: gure berezko Estatu nazionala berraktibatu eta berrantolatzea: Nabarra Estatua lortzearen norabide bakarrean lan egitera zuzendu behar dugula.

NABARRA, EUSKALDUNON ESTATUA, BERRERAIKI DEZAGUN!

